JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**31. zk.** **2001eko martxoaren 14a, asteazkena - Miércoles, 14 de marzo de 2001** **nº 31**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.417**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2001eko otsailaren 26an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onartu zuten:

OTSAILAREN 26KO 2/2001 FORU ARAUA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN FORU ARAUAN ZENBAIT ALDAKETA EGITEN DITUENA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Foru Arau honen helburua hau da: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan zenbait aldaketa egitea, lanetik lortutako errenten presio fiskala gutxitzeko eta seme-alabak eta minusbaliatuak dituzten familien kargak arintzeko.

Jasotzen diren neurriei dagokienez, lehenengo eta behin aipatzekoa da lanaren etekinei aplikagarriak zaizkien hobariak gehitzen direla. Hobari horiek, arau orokorrez, 70.000 pezetatan (420,71 eurotan) handitzen dira. Beraz, 625.000 pezetatik (3.756,33 euro) 695.000 pezetara (4.177,03 euro) handitzen dira, eta 350.000 pezetatik (2.103,54 euro) a 420.000 pezetara (2.524,25 euro).

Zergaren tarifa berria onartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan bateratzea lortzeko.

Ondorengo ahaideengatiko kenkarien zenbatekoak handitzen dira, laugarrenari eta hurrengoei aplikagarria zaien kenkari maila berri bat sartuz. Horrela, azpimarkatzekoa da sartutako gehikuntzak lehenengo ondorengoagatiko kenkariaren % 15,86tik eta hirugarren eta laugarrenarengatiko kenkariaren % 83,82ra bitartean dabiltzala. Ikus daitekeenez, gehikuntza garrantzitsua da, familiei laguntzeko helburuaz.

Aurreko neurriarekin loturik, minusbaliatuengatiko kenkarien hobekuntza ere sartzen da. Kenkari horien zenbatekoak handitzeaz eta minusbalia mailara hobeto egokitzen den mailaketa bat ezartzeaz gainera, kenkari horien aplikazio eremua, hau da, kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten kasuak, zabalagotu egiten dira. Izan ere, lehengo arauketan ez bezala, zergadunaren kontu dauden ezkontideak eta laugarren mailarainoko (maila hori barne) albo-ahaideak sartzen dira kenkarirako eskubidea ematen duten pertsona minusbaliatuen artean. Baita ere, kenkarirako eskubidea izateko minusbaliatuaren errentek gainditu behar ez duten muga handitzen da, delako zergaldiko lanbide arteko gutxienezko soldatatik bi halakora pasatzen baita.

Azkenik, Foru Arau honen berritasun nabarmengarrien artean, aitorpena egiteko beharrari buruz egindako aldaketa aipatu behar da. Aldaketa horrek zerga-ordainketa modu berri bat sartzen du, aitorpena egiteko beharra sortzen duen zenbatekoa baino gutxiagoko lan errentak lortu arren, errenta horiek ordaintzaile bat baino gehiagorengandik jasotzen dituztelako edo betiere lan errentekin loturiko beste arrazoi batzuengatik aitorpena egitera beharturik dauden zergadunek jasan dezaketen tratu desberdina deuseztatzeko.

Horri dagokionez, ordaindu beharreko kuota kalkulatzeko, atxikipen taula zergaldian jasotako lan errenten zenbateko osoari (salbuetsitako errentak izan ezik) aplikatu eta jasandako atxikipenak kendu beharko dira. Inoiz ere ez dira kontuan izango bestelako dirusarre-

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**1.417**

Las Juntas Generales de Álava, en Sesión Plenaria celebrada el día 26 de febrero de 2001, aproraron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 2/2001, DE 26 DE FEBRERO, POR LA QUE SE INTRODUCEN DIVERSAS MODIFICACIONES EN LA NORMA FORAL DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Norma Foral tiene por objeto introducir una serie de modificaciones en la regulación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que reduzcan la presión fiscal de las rentas del trabajo y alivien las cargas de las familias con hijos y discapacitados.

En orden a las medidas incluidas, cabe comenzar haciendo referencia al incremento de las bonificaciones aplicables sobre los rendimientos del trabajo, que se incrementan, por regla general, en 70.000 pesetas (420,71 euros), pasando, por tanto, de 625.000 pesetas (3.756,33 euros) a 695.000 pesetas (4.177,03 euros) y de 350.000 pesetas (2.103,54 euros) a 420.000 pesetas (2.524,25 euros).

Se aprueba una nueva taifa del Impuesto con objeto de lograr una armonización de la misma en los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma Vasca.

Se incrementan los importes de las deducciones por descendientes, incluyendo un nuevo tramo de deducción aplicable al cuarto y siguientes. Así, cabe resaltar que los incrementos introducidos están comprendidos entre un 15,86% en la deducción por el primer descendiente, y un 83,82% de incremento en la deducción por el tercer y cuarto descendiente. Como se puede apreciar, el incremento es sustancial, y ello en aras de apoyar a las familias.

Unido con la anterior medida, se incluye la mejora de las deducciones por los discapacitados, que además de incrementar sus cuantías y establecer una graduación más acorde con el grado de discapacidad de que se trate, se amplía el ámbito de aplicación o los supuestos que dan derecho a aplicar la susodicha deducción, pues a diferencia de la regulación anterior, se incluyen entre las personas discapacitadas que dan derecho a deducción a los cónyuges y parientes colaterales hasta el cuarto grado inclusive, que dependan del contribuyente. También se incrementa el límite de rentas del discapacitado por encima del cual no se tiene derecho a la deducción, que pasa del salario mínimo interprofesional en el período impositivo de que se trate al doble de dicho salario.

Por último, y como novedad destacable en la presente Norma Foral hay que citar la modificación introducida en la obligación de declarar, que incluye una nueva forma de tributación con el fin de eliminar el diferente trato que puedan soportar aquellos contribuyentes que obteniendo rentas del trabajo por debajo de la cuantía que determina la obligación de declarar están, sin embargo, obligados a presentar la declaración por percibir dichas rentas de más de un pagador o por otros supuestos relacionados siempre con las rentas del trabajo.

A estos efectos, la cuota a ingresar se determinará aplicando la tabla de retenciones a la totalidad de las rentas del trabajo percibidas durante el período impositivo, excluidas las exentas, y restando las retenciones soportadas. En ningún caso se tendrán en cuenta

rak, eta ezin izango da inolako hobari, kenkarik, murrizpen edo zerga onurarik aplikatu.

Aitorpen hau egitea betiere aukerakoa da. Beraz, horren aplikazioa ahalbideratzen duten kasuen barruan dagoen zergadunak honako bi aukera hauetako bat hauta dezake: Zergaren arau orokorrak aplikatuz aitorpena egitea, edo lan etekinak bakarrik kontuan hartzen dituen sistema berri honetaz baliatzea.

**1. artikulua.- Lan etekinei aplikagarriak zaizkien hobariak aldatzea.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 19. artikulua aldatzen da, jarraian bezala idatzita egongo delarik:

"19. artikulua.- Hobariak

1.- Etekin osoen multzoaren eta gastu kengarrien arteko diferentzia positiboa honako kopuru hauekin hobarituko da:

a) Diferentzia hori 1.250.000 pezetakoa (7.512,65 euro) edo txikiagoa izanez gero, 695.000 pezetako (4.177,03 euroko) hobaria aplikatuko da.

b) Diferentzia 1.250.001 pezeta (7.512,66 euro) y 2.500.000 pezetaren (15.025,30 euroren) artean dagoenean, aplikatu beharreko hobaria zehazteko, 695.000 pezetatik (4.177,03 euro) ondoko eragiketaren emaitza kenduko da: aipatutako diferentziari 1.250.000 pezeta (7.512,65 euro) kentzearen emaitza bider 0,22.

c) Diferentzia 2.500.000 pezeta (15.025,30 euro) baino handiagoa izanez gero, 420.000 pezetako (2.524,25 euroko) hobaria aplikatuko da.

2.- Zerga oinarrian lanetik ez datozen errentak konputatzen direnean, horiek 1.250.000 pezetatik gorakoak badira, hobaria 350.000 pezetakoa izango da.

3.- Aurreko ataletan jasotzen diren hobarien zenbatekoa era honetara gehituko da:

a) % 100, jardunean dauden langile minusbaliatuentzat, baldin eta beren minusbalia maila % 33koa edo handiagoa izanik eta % 65era iritsi gabe, beren lanpostura joateko edo lana burutzeko beste norbaiten laguntza behar dutela edo mugikortasun mugatuko egoeran daudela egiaztatzen badute.

b) % 150, jardunean dauden langile minusbaliatuentzat, beren minusbalia maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

4.- artikulu honetan aurreikusitako hobaria aplikatzearen ondorioz ateratzen den etekin garbia ezingo da negatiboa izan."

**2. artikulua.- Zergaren eskala aldatzea**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 68. artikuluko 1. atala aldatzen da, jarraian bezala idatzita egongo delarik:

"1. Likidazio oinarri orokorra ondoko taulan azaltzen diren tasekin kargatuko da:

otros ingresos ni procederá la práctica de ninguna bonificación, deducción, reducción o beneficio fiscal.

La práctica de esta declaración es siempre optativa, de modo que el contribuyente incluido entre los supuestos que posibilitan su aplicación, podrá optar entre declarar aplicando las reglas generales del Impuesto, o por aplicar este nuevo sistema que tiene en cuenta exclusivamente los rendimientos del trabajo.

**Artículo 1.- Modificación de las bonificaciones aplicables a los rendimientos del trabajo**

Se modifica el artículo 19 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedando redactado en los siguientes términos:

"Artículo 19.- Bonificaciones

1.- La diferencia positiva entre el conjunto de los rendimientos íntegros y los gastos deducibles se bonificará en las siguientes cuantías:

a) Cuando la diferencia sea igual o inferior a 1.250.000 pesetas (7.512,65 euros), se aplicará una bonificación de 695.000 pesetas (4.177,03 euros).

b) Cuando la diferencia esté comprendida entre 1.250.001 pesetas (7.512,66 euros) y 2.500.000 pesetas (15.025,30 euros), se aplicará una bonificación de 695.000 pesetas (4.177,03 euros) menos el resultado de multiplicar por 0,22 la cuantía resultante de minorar la citada diferencia en 1.250.000 pesetas (7.512,65 euros).

c) Cuando la diferencia sea superior a 2.500.000 pesetas (15.025,30 euros), se aplicará una bonificación de 420.000 pesetas (2.524,25 euros).

2.- Cuando en la base imponible se computen rentas no procedentes del trabajo cuyo importe exceda de 1.250.000 pesetas (7.512,65 euros), la cuantía de la bonificación será de 420.000 pesetas (2.524,25 euros).

3.- Las bonificaciones contempladas en los apartados anteriores se incrementarán:

a) En un 100% para aquellos trabajadores activos discapacitados con un grado de minusvalía igual o superior al 33% e inferior al 65% que, para desplazarse a su lugar de trabajo o para desempeñar el mismo, acrediten necesitar ayuda de terceras personas o se encuentren en estado carencial de movilidad reducida.

b) En un 150% para aquellos trabajadores activos discapacitados con un grado de minusvalía igual o superior al 65%.

4.- La aplicación de la bonificación prevista en este artículo no podrá dar lugar a un rendimiento neto negativo del trabajo."

**Artículo 2.- Modificación de la escala del Impuesto**

Se modifica el apartado 1 del artículo 68 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedando redactado en los siguientes términos:

"1. La base liquidable general será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:

| Likidazio oinarri orokorra, kopuru honetaraino<br>Base liquidable General hasta | | Kuota osoa<br>Cuota íntegra | | Likidazio oinarrien gainera-koa, kopuru honetaraino.<br>Resto base liquidable hasta/ | | Aplikatzeko tasa<br>Tipo aplicable/ |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Pezeta<br>Pesetas | Euro<br>Euros | Pezeta<br>Pezeta | Euro<br>Euro | Pezeta<br>Pezeta | Euro<br>Euro | (ehunekoa)<br>(porcentaje) |
| 578.000 | 3.473,85 | 0 | 0,00 | 525.500 | 3.158,32 | 17,00 |
| 1.103.500 | 6.632,17 | 89.335 | 536,91 | 1.891.000 | 11.365,14 | 25,00 |
| 2.994.500 | 17.997,31 | 562.085 | 3.378,20 | 2.206.500 | 13.261,33 | 30,00 |
| 5.201.000 | 31.258,64 | 1.224.035 | 7.356,60 | 2.206.500 | 13.261,33 | 38,00 |
| 7.407.500 | 44.519,97 | 2.062.505 | 12.395,90 | 4.150.000 | 24.942,00 | 44,00 |
| 11.557.500 | 69.461,97 | 3.888.505 | 23.370,39 | hortik gora<br>en adelante | hortik gora<br>en adelante | 50,00" |

**3. artikulua.- Ondorengo ahaideengatiko kenkaria aldatzea**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 71. artikuluko 1. atala aldatzen da, jarraian bezala idatzita egongo delarik:

"1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzagatik, kenkari hau egingo da:

a) 65.000 pezeta (390,66 euro) urtean, lehenengoagatik.

b) 80.000 pezeta (480,81 euro) urtean, bigarrenagatik.

c) 120.000 pezeta (721,21 euro) urtean, hirugarrenagatik.

d) 150.000 pezeta (901,52 euro) urtean, laugarrenagatik eta hurrengoetako bakoitzagatik.

Zergadunarekin bizi den hiru urtetik beherako ondorengo ahaide bakoitzagatik, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera dago-

**Artículo 3.- Modificación de la deducción por descendientes**

Se modifica el apartado 1 del artículo 71 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedando redactado en los siguientes términos:

"1. Por cada descendiente que conviva con el contribuyente se practicará la siguiente deducción:

a) 65.000 pesetas (390,66 euros) anuales por el primero.

b) 80.000 pesetas (480,81 euros) anuales por el segundo.

c) 120.000 pesetas (721,21 euros) anuales por el tercero.

d) 150.000 pesetas (901,52 euros) anuales por el cuarto y por cada uno de los sucesivos.

Por cada descendiente menor de tres años que conviva con el contribuyente, además de la deducción que corresponda conforme

kion kenkariaz gainera, urtean 35.000 pezetako (210,35 euroko) kenkari osagarri bat egingo da."

**4. artikulua.- Minusbaliatuengatiko kenkaria aldatzea.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 74. artikulua aldatzen da, jarraian bezala idatzita egongo delarik:

"74. artikulua.- Minusbaliatuengatiko kenkaria.

1. Aurreko artikuluetan adierazitakoaren arabera bidezko diren kenkariez gainera, jaiotzaz nahiz geroko gertaerengatik itsua, mutilatua edo elbarri fisiko edo psikikoa den zergadun bakoitzagatik, jarraian adierazten den kenkaria egingo da, erregelamendu bidez ezartzen denari jarraituz zehaztutako minusbalia mailaren arabera.

| MINUSBALIA MAILA | KENKARIA (PEZETATAN) | KENKARIA (EUROTAN) |
|---|---|---|
| %33 EDO HANDIAGO ETA %65ETIK BEHERAKO | 65.000 | 390,66 |
| %60 EDO HANDIAGOA ETA %75ETIK BEHERAKOA | 100.000 | 601,01 |
| %75 EDO HANDIAGOA | 150.000 | 901,52 |

Kenkari berdina egingo da jaiotzaz nahiz geroko gertaerengatik itsua, mutilatua edo elbarri fisiko edo psikikoa den ezkontide, aurreko edo ondorengo ahaide edo laugarren mailarainoko (maila hori barne) albo-ahaide bakoitzagatik, edozein adinetakoa ere delarik, baldin eta, zergadunaren kontu badaude eta ahaide horiek delako ekitaldiko lanbide arteko gutxienezko soldataren doblea baino gehiagoko errentarik ez badute urtean. Kenkari hau bateragarria izango da aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera bidezko diren kenkariekin.

Era berean, kenkari hau aplikatu ahal izango da baldin eta minusbalia jasaten duen pertsona horri zergadunak, adin txikikoen babesaren arloan eskumenak dituen erakunde publikoaren aurrean formalizatuta eta ordainik gabe, tutoretzapean edo etxean hartuta badauka eta aurreko apartatuan adierazitako errenta mailaren baldintza betetzen bada.

2. Aurreko 1. atalean jasotzen diren ahaideen edo horiekin parekatuen zerrendaren barruan sartu ez arren, zergadunarekin bizi den 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzagatik, baldin eta bere dirusarrerak lanbide arteko gutxienezko soldataren doblea baino txikiagoak badira eta egiaztatzen badute beste pertsona batzuen laguntza behar dutela edo mugikortasuna erregelamendu bidez ezartzen den mailan murriztuta daukatela, 100.000 pezetako (601,01 euroko) kenkari bat egingo da.

Kenkari hau bateraezina izango da artikulu honetako 1. atalean ezarritakoarekin.

3. Minusbalia duen pertsonak zerga honen aitorpena aurkezten duenean, berak kenkaria osorik aplikatzea edo bere kontu daukan zergadunak kenkaria osorik aplikatzea aukeratu dezake. Bigarren aukera hori hautatuz gero, minusbalia duen pertsona zergadun bat baino gehiagoren kontu badago, kenkaria zati berdinez hainbanatuko da zergadun horien artean."

**5. artikulua.- Aitortzeko beharra.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 95. artikuluko 3. atala jarraian bezala idatzita geratuko da:

"3. Aurreko atalеko a) letran xedatutakoa kontuan hartu gabe, zerga honen aitorpena aurkeztu beharko dute delako ekitaldian ordaintzaile bat baino gehiagorengandik datozen lan etekinak jasotzen dituztenek edo lan kontratu bat baino gehiago, lan-legepekoa edo administratiboa, sinatu edo indarrean zegoena luzatu dutenek. Halaber, zerga honen aitorpena aurkeztu beharko dute ezkontidearengandik hartutako konpentsazio pentsioak edo Foru Arau honetako 8. artikuluaren b) letran aurreikusitakoez bestelako urteroko mantenuak jasotzen dituztenek.

Halaber, eta aurreko 2. atalean xedatutakoagatik ere, erregelamendu bidez aitorpena egiteko beharra sortzen duten beste kasu batzuk ezarri ahal izango dira.

Aurreko ataleko a) letran aipatzen den mugatik beherako lan etekinak jaso arren, aurreko lehenengo paragrafoan ezarritakoaren ondorioz edo erregelamendu bidez hala aginduta dagoelako aitorpena aurkeztu beharra dagoen kasuetan, azkenengo kasu horretan eginbehar hori lan etekinak jasotzeaz bestelako arrazoiengatik sortu ezean, zergadunak aukera hauek izango ditu:

a) Zerga honen xedapen orokorren arabera zerga ordaintzea, edo

b) Lan etekinak bakarrik kontuan hartuz, hurrengo erregelen arabera zerga ordaintzea:

al párrafo anterior, se practicará una deducción complementaria de 35.000 pesetas (210,35 euros) anuales."

**Artículo 4.- Modificación de la deducción por discapacitados**

Se modifica el artículo 74 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedando redactado en los siguientes términos:

"Artículo 74.- Deducción por discapacidad.

1. Por cada contribuyente que sea invidente, mutilado o inválido, físico o psíquico, congénito o sobrevenido, se aplicará, además de las deducciones que procedan de acuerdo con lo señalado en los artículos anteriores, la deducción que, en función del grado de discapacidad fijado conforme a lo que se establezca reglamentariamente, se señala a continuación:

| GRADO DE DISCAPACIDAD | DEDUCCIÓN (PESETAS) | DEDUCCIÓN (EUROS) |
|---|---|---|
| IGUAL O SUPERIOR AL 33% E INFERIOR AL 65% | 65.000 | 390,66 |
| IGUAL O SUPERIOR AL 65% E INFERIOR AL 75% | 100.000 | 601,01 |
| IGUAL O SUPERIOR AL 75% | 150.000 | 901,52 |

Igual deducción cabrá aplicar por cada descendiente, ascendiente, cónyuge o por cada pariente colateral hasta el cuarto grado inclusive, cualquiera que sea su edad, que, dependiendo del contribuyente y no teniendo, aquellos familiares, rentas anuales superiores al doble del salario mínimo interprofesional en el período impositivo de que se trate, sean invidentes, mutilados o inválidos, físicos o psíquicos, congénitos o sobrevenidos. Esta deducción será compatible con las deducciones que procedan de acuerdo con lo señalado en los artículos anteriores.

Asimismo procederá la aplicación de esta deducción cuando la persona afectada por la discapacidad esté vinculada al contribuyente por razones de tutela o acogimiento no remunerado formalizado ante la Entidad Pública con competencias en materia de protección de menores, y se de la circunstancia de nivel de renta señalada en el párrafo anterior.

2. Por cada persona de edad igual o superior a 65 años que, no estando incluida en la relación de familiares o asimilados contemplados en el apartado 1 anterior, tenga ingresos inferiores al doble del salario mínimo interprofesional, conviva con el contribuyente y acredite necesitar ayuda de terceras personas o movilidad reducida en el grado que se establezca reglamentariamente, se practicará una deducción por importe de 100.000 pesetas (601,01 euros).

Esta deducción será incompatible con la establecida en el apartado 1 de este artículo.

3. Cuando la persona con discapacidad presente declaración por este Impuesto podrá optar entre aplicarse en su totalidad la deducción o que se la practique en su totalidad el contribuyente de quien dependa. En el caso de que se opte por esta segunda posibilidad y la persona con discapacidad dependa de varios contribuyentes, la deducción se prorrateará y practicará por partes iguales cada uno de estos contribuyentes."

**Artículo 5.- Obligación de declarar**

El apartado 3 del articulo 95 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, quedará redactado de la siguiente forma:

"3. Con independencia de lo dispuesto en la letra a) del apartado anterior, estarán obligados a presentar declaración por este Impuesto quienes perciban rendimientos del trabajo procedentes de más de un pagador o hubiesen suscrito más de un contrato de trabajo, laboral o administrativo, en el ejercicio o prorrogado el que estuviese vigente. Asimismo deberán presentar declaración por este Impuesto quienes perciban pensiones compensatorias recibidas del cónyuge o anualidades por alimentos diferentes de las previstas en la letra b) del artículo 8 de esta Norma Foral.

Asimismo, y no obstante lo dispuesto en el apartado 2 anterior, reglamentariamente podrán establecerse otros supuestos que determinen la obligación de declarar.

En los casos en que pese a percibir rendimientos del trabajo por debajo del límite a que se refiere la letra a) del apartado anterior, se esté obligado a presentar declaración como consecuencia de lo dispuesto en el párrafo primero anterior o porque así se establezca reglamentariamente, salvo que, en este último caso, dicha obligación esté relacionada con causas distintas a la percepción de rendimientos del trabajo, el contribuyente podrá optar entre:

a) Tributar de acuerdo con las disposiciones generales de este Impuesto, o

b) Tributar, teniendo en cuenta exclusivamente los rendimientos del trabajo, según las siguientes reglas:

a’) Lan etekinetarako ezarritako atxikipen ehunekoen taulak sortutako mota honetako etekinen zenbateko osoari aplikatuko zaizkio, Foru Arau honetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera salbuetsita dauden etekinak alde batera utzita. Horretarako, atxikipenaren pean dauden etekinen zenbatekoa zehazteko eta atxikipen taulak finkatu eta aplikatzeko Zergaren sortzapen datan indarrean dauden erregelak kontuan hartuko dira.

b’) Aurreko a´) letran ezarritakoa aplikatzearen ondorioz ateratzen den kopurua, lan etekinen gainean egindako atxikipen eta konturako sarreren zenbatekoaz txikituko da. Ateratzen den kopurua Foru Aldundiari ordaindu beharrekoa izango da, eta erregelamendu bidez erabakitzen den moduan zatitu ahal izango da. Zerga ordaintzeko prozedura honetaz baliatzearen ondorioz ezin izango da inoiz ere itzulketarik egin.

c’) Inoiz ere ezin izango dira aplikatu gastu kengarriak, hobariak, murrizpenak, kenkariak, zerga batera ordaintzeko erregelak, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen arautegian aurreikusitako beste edozein onura.”

AZKEN XEDAPENA

Foru Arau hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondoko egunean jarriko da indarrean, eta 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hala ere, Foru Arau honetako 5. artikuluak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauaren 95. artikuluko 3. atalari ematen dion idazmolde berriak 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria/Gasteiz, 2001eko otsailaren 27a.– Lehendakaria, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**1.419**

Arabako Biltzar Nagusiek 2001eko otsailaren 26an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi zuten:

OTSAILAREN 26KO 4/2001 FORU ARAUA VITORIA-GASTEIZKO ARTE GARAIKIDEAREN EUSKAL MUSEOA ERAIKITZEKO PROIEKTURAKO EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-EKARPENEN ERREGIMENA EZARTZEN DUEN HITZARMENA BERRESTEKOA.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari bere Autonomia Estatutuak kultura eremuan orohar (10.17. artikuluan) eta museoen eremuan bereziki (10.20. artikuluan) aitortzen dizkion ahalmenen ondorioz, uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, Euskadiko Kultura Ondarearena. Lege horretan Euskadiko kultura ondarearen lege araubidea, oro har, eta, hura osatzen duten beste elementu batzuen artean, museoena ezartzen da (IV. Tituluaren III. Kapitulua).

Beste alde batetik, 27/1983 Legeak, “Autonomia Erkidego Osoko Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei” buruzkoak, 5/1993 Legeak aldaturik, lurralde horietako bakoitzeko foru erakundeei aginpide esklusiboak aitortzen dizkie beraiek titular bezala dituzten museoen gainean (7.tik 12.erako artikuluak).

Museoak, berez, aginte publikoek esleiturik daukaten aginpide esparruaren arabera, beraiengandik arreta berezia jaso behar duten instituzio kulturalak dira, eta Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko administrazioari dagokio Autonomia Erkidegoaren esparruan kultura eragina daukaten museoak garatzen laguntzea.

Arabako Foru Aldundiak gai nagusia arte garaikidea izango duen museo bat bultzatu du eta bultzatzen ari da. Museo hori garrantzi berezikotzat jotzen da Euskal Herrian gaur egun dauden eta etorkizunean egongo diren museo instalazioen multzoaren barruan.

Helburu horretarako, Arabako Foru Aldundiak eraikuntza proiektu bat agindu zion José Luis Catón Santarén arkitektoari. Proiektu horretan, Vitoria-Gasteizko lehengo autobus geltokiaren orubean Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoaren egoitza izango den etxea eraikitzeko jarduketaren ezaugarriak jasotzen dira. Era berean, hura eraikitzeko obrak exekutatzeko dagokion administrazio espedientea sustatu du.

Eusko Jaurlaritzak Arte Garaikidearen Euskal Museoaren finantzaketan laguntzeaz interesa du.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza hitzarmen bat izenpetzea, horren bitartez

a’) Se aplicarán las tablas de porcentajes de retención, establecidas para los rendimientos del trabajo, sobre el importe total de este tipo de rendimientos devengados, excepto los que se encuentren exentos de acuerdo con lo dispuesto en el articulo 9 de esta Norma Foral. A estos efectos, se tendrán en cuenta las reglas de determinación del importe de los rendimientos sometidos a retención y las de fijación y aplicación de las tablas de retención vigentes a la fecha del devengo del Impuesto.

b’) La cantidad resultante como consecuencia de la aplicación de lo establecido en la letra a´) anterior, se minorará en el importe de las retenciones e ingresos a cuenta efectuados sobre los rendimientos del trabajo. La cantidad resultante será la que deberá ingresarse en la Diputación Foral y podrá fraccionarse en la forma que reglamentariamente se determine. En ningún caso procederá devolución alguna como consecuencia de la utilización de este procedimiento de tributación.

c’) En ningún caso serán de aplicación gastos deducibles, bonificaciones, reducciones, deducciones, reglas de tributación conjunta o cualquier otro incentivo previsto en la normativa reguladora del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.”

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Norma Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava y surtirá efectos a partir del 1 de enero del año 2001.

No obstante lo anterior, la nueva redacción dada por el artículo 5 de la presente Norma Foral, al artículo 95, apartado 3 de la Norma Foral 35/1998, de 16 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, empezará a surtir efectos a partir del 1 de enero de 2000.

Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2001.– La Presidenta, XESQUI CASTAÑER LÓPEZ.

## JUNTAS GENERALES DE ALAVA

**1.419**

Las Juntas Generales de Álava en Sesión Plenaria celebrada el día 26 de febrero de 2001, aprobaron la siguiente Norma Foral:

NORMA FORAL 4/2001, DE 26 DE FEBRERO, DE RATIFICACIÓN DEL CONVENIO POR EL QUE SE FIJA EL RÉGIMEN DE LAS APORTACIONES DEL GOBIERNO VASCO AL PROYECTO DE EDIFICACIÓN DEL MUSEO VASCO DE ARTE CONTEMPORÁNEO EN VITORIA-GASTEIZ.

